

hazi



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

2027 SUSTAPEN PLANA

Euskadiko Elikagaien Industria

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



EUSKADIKO ELIKAGAIEN INDUSTRIA SUSTATZEKO PLANA 2027

> Sarrera	02
> Estatuko eta nazioarteko azokak	03
> Misio komertzial zuzenak eta alderantzizkoak	04
> Azoken egutegia	05
> Parte hartzeko baldintzak	06
> Jardunbide egokien kodea	07
> Klausula juridikoak	07
> Araudia betzea	08
> Baloratzeko ahalmenak	08
> Erantzukizunpeko adierazpena	09
> Jarraipena eta kontrola	09
> Komunikazioa	09

EUSKADIKO ELIKAGAIEN INDUSTRIA SUSTATZEKO PLANA 2027

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, HAZI Fundazioaren bidez, **Euskadiko Elikagaien Industriaren 2027ko Sustapen Plana** aurkeztu du.

Dokumentuan 2027ko ekitaldirako aurreikusitako **azokak, misio komertzialak** eta **sustapen-ekintzak** definituta dauden, Euskadiko elikagaien enpresen sustapena, merkaturatzea eta nazioartekotzea bultzatzeko.



HELBURUAK



Euskadiko elikagai-industriako produktuak **sustatzea**.



Azken urteetan sustapen-ekintzak egin diren merkatuetan **presentzia indartzea**, sektoreak eskatzen dituen intereseko formatu berriak gehitzu.



Euskal enpresak **nazioartekotzen** laguntzea.



Estatuko eta nazioarteko merkatu berrietarako **sarbidea erraztea**, bereziki esportazio-jarduera hasi edo indartu nahi duten enpresa txikiei.

ESTATUKO ETA NAZIOARTERKO AZOKAK

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, HAZI Fundazioaren bidez, **euskal elikagaien enpresen** presentzia **bultzatzen** jarraitzearen aldeko apustua egin du **estatuko eta nazioarteko elikadura- eta edari-azoketan**.

Azoka bakoitzean **parte hartzeko ezinbestekoa** izango da izena eman duten enpresen kopurua baterako parte-hartzea justifikatzen duen **gutxieneko kopurura** iristea, bai eta plazen erabilgarritasuna eta deialdi bakoitzeko baldintza espezifikoak ere.

AZOKA			
<u>SIRHA LYON</u>	Lyon	Elikadura	2027 urtarrilak 21 - 25
<u>BARCELONA WINE WEEK</u>	Bartzelona	Edariak	2027 otsailak 8 - 10
<u>WINE PARIS</u>	Paris	Edariak	2027 otsailak 15 - 17
<u>HIP</u>	Madril	Elikadura	2027 martxoak 1 - 3
<u>PROWEIN DÜSSELDORF</u>	Düsseldorf	Edariak	2027 martxoak 7 - 9
<u>SEAFOOD</u>	Bartzelona	Elikadura	2027 apirilak 20 - 22
<u>GOURMETS</u>	Madril	Elikadura eta edariak	2027 apirilak 26 - 29
<u>CONXEMAR</u>	Vigo	Elikadura	Deialdian berretsi beharreko data
<u>ANUGA</u>	Colonia	Elikadura	2027 urriak 9 - 13

ZUZENEKO ETA ALDERANTZIZKO MISIO KOMERTZIALAK ETA **MERKATU BERRIAK**

Azoketara joateaz gain, **edarien sektorerako nazioarteko merkatua indartzeko** politikarekin aurrera egingo dugu, interesgarritzat jotzen diren herrialdeetan **merkataritza-misioak** antolatuz.

Ildo horretan, 2025. eta 2026. urteetan egindako lana indartzeko, **Mexikoko merkatuan** lan egiten jarraituko da, eta alderantzizko misio bat antolatuko da 2027ko lehen seihilekoan.

Merkatu interesgarri berriak bilatzeko politikaren ildotik, **Kanadako merkatuan** lanean hasiko gara. Kanadako inportatzaileen alderantzizko misioa bat aurreikusi da 2027ko urtarrilerako *Gure Ardoak 2027* azokaren esparruan. 2027ko udazkenean zuzeneko misio bat antolatuko da, Montrealgo *La Grande Dégustation* azokan parte hartzeko.

Azkenik, **Caprice II** programaren barruan, zuzeneko misioak eta alderantzizko misioak egingo dira **Japonia eta Hego Koreako merkatuetara**, Euskal Autonomia Erkidegoko Kantauriko Txakolina, Euskal Sagardoa eta Euskadiko Kantauriko Antxoa eta Euskal Herriko Kantauriko Hegaluzea sustatzeko.

Aldi berean, herrialde horietako edarien sektorerako misioak antolatuko dira.

Hala ere, eta egungo ziurgabetasun-egoera dela-eta, Sailak nazioarteko merkatuaren jarraipena egingo du, eta ez da baztertzeko interesgarritzat jo daitekeen beste herrialderen batekin beste misioren bat egitea.



AZOKEN EGUTEGIA

2027

Urtarrila

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

 SIRHA LYON

Otsaila

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28

 BARCELONA WINE WEEK
 WINE PARÍS

Martxoa

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

 HIP
 PROWEIN DUSSELDORF

Apirila

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

 SEAFOOD
 GOURMETS

Maiatza

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

Ekaina

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

Uztaila

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Abuztua

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

Iraila

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

Urria

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
			1	2	3	
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

 CONXEMAR
 ANUGA

Azaroa

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

Abendua

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Jarduera hauetan parte hartu ahalko dute Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Industrien Erregistroan inskribatuta dauden eta **egoitza soziala eta ekoizpen-jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa ekoizleek.**

Erakusgai jarriko diren produktuak **Euskal Autonomia Erkidegoko fabrikaziokoak baino ez dira izango.**

Ezin izango da **beste autonomia-erkidego batzuetako produkturik** aipatu edo aurkeztu.

Jarraian, 2027ko Sustapen Planean planteatu diren ekintzetan parte hartzeko **kosturako dirulaguntza** desberdinen **sailkapena** azalduko dugu.

Sailkapena behar bezala esleitu ahal izateko, enpresek **lehengaiaren jatorria egiaztatu** beharko dute **zinpeko adierazpen** baten bidez, zeina azoka bakoitzean izena emateko unean aurkeztu beharko duten.

ENPRESEN SAILKAPENA

1

Batez ere **Euskadiko lehengaiz** hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorria egiaztatu beharko du.

2

Euskadin behar duten lehen sektoreko produktorik egon ez, eta **Euskaditik kanpoko lehengaiak** erabiltzen dituzten enpresak.

3

Batez ere **Euskadiko lehengaiz hornitzen EZ** diren enpresak, Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioa egonda ere.

EUSKADIKO ELIKADURA SISTEMAREN JARDUNBIDE EGOKIEN KODEA

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Elikadura Sistemaren Enpresa-jardunbide Egokien Kodeari atxikitzeko gonbita egiten die elikakatea osatzen duten enpresa guztiei.

Jardunbide Egokien Kodeak Euskadiko elikaduraren balio-katean esku hartzen duten operadore guztien arteko merkataritza-harremanek oinarri izan behar dituzten **printzipioak** ezartzen ditu, **katearen beraren gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-jasangarritasuna sustatzeko**.

PARTE HARTZEKO KLAUSULA JURIDIKOAK

Plan honetan jasotako jardueretan parte hartzea **borondatezkoa** da, eta ez du automatikoki plaza lortzeko edo etorkizuneko jardueretan parte hartzeko eskubiderik sortzen.

Onartua izateko, planean eta deialdi bakoitzean ezarritako **baldintzak bete beharko dira**, eta plazen eskuragarritasuna kontuan hartu beharko da.

Erakunde parte-hartzaileek **egunean izan beharko dituzte beren betebeharrak**, eta une oro bete beharko dute aplikatzekoa zaien indarreko araudia.

Hautaketarako, deialdi bakoitzean adierazitako irizpideez gain, **aplikatzekoa den araudia betetzea baloratu** ahalko da, laneko araudia barne, bai eta laneko eskubideen arloan zehapen edo kondena irmorik ez egotea ere.

ARAUDIA BETETZEA ETA BAZTERTZEKO ARRAZOIAK

Ezingo dute parte hartu jardueraren xede den jarduerarekin, elikagaien segurtasunarekin, laneko araudiarekin, tratu-berdintasunarekin, kontratazio publikoarekin edo laguntza publikoak eskuratzearrekin zuzeneko lotura duten arau-hauste larri edo oso larriengatik zigor penal irmoa edo administrazio-zehapen irmoa jaso duten erakundeek.

Planean, dagokion deialdian edo araudi aplikagarrian aurreikusitako baldintzak eta betebeharrak ez betetzeak parte-hartzea ukatzea, mugatzea edo baztertzea ekar dezake, modu arrazoituan, eta, hala dagokionean, erakunde interesdunari entzunaldia eman ondoren.

BALORATZEKO ETA BAZTERTZEKO AHALMENAK

HAZI Fundazioak, modu arrazoituan, parte hartzea ukatu, mugatu edo berrikusi ahal izango du, jarduera behar bezala garatzen eragin dezaketen inguruabarrak egonez gero.

Honako alderdi hauek baloratu ahal izango dira, besteak beste: abian diren prozedura judizialak edo administratiboak egotea; gertakarien izaera eta larritasuna; eta, haien izaera, larritasuna edo eragina dela-eta, jardueraren garapen egokian, sustapen-ekintzaren irudi instituzionalean edo lortu nahi den interes publikoan eragina izan dezaketen inguruabarrak.

Abian diren prozedura judizial edo administratiboek ez dute berez ekarriko erakunde eskatzailea automatikoki baztertzea.

Erabakiak hartzeko proportzionaltasunaren, tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta motibazio nahikoaren printzipioak errespetatuko dira.

ARAUDIA BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK IZAN BEHAR DU:

Aplikatu beharreko araudia **betetzen** dutela.

Administrazio-zehapen irmorik edo **zigor penal** irmorik **ez izatea**,
Planean aurreikusitako baldintzetan.

Jardueretan parte hartzeari eragin diezaioketen **aribideko prozedura** judizialak edo **administratiboak** jakinaraztea.

Hautaketa-prozeduran edo jardueraren garapenean gertatzen den **edozein aldaketa garrantzitsuren berri** ematea.

* Datu garrantzitsuak **faltsutzeak**, **zehaztasunik ezak** edo **horien faltak** partaidetza ukatzea, baztertzea, mugatzea edo baliogabetzea ekar dezake.

JARRAIPENA ETA KONTROLA

HAZI Fundazioak informazio gehigarria eskatu, baldintzak betetzen direla egiaztatu eta emandako parte hartzea berrikusi ahal izango du. Ez-betetzeen kasuan, parte-hartzea mugatzea edo ezeztatzea erabaki ahal izango da. Planean, dagokion deialdian edo aplikatu beharreko araudian ezarritako baldintzak betetzen ez badira, parte-hartzea mugatzea edo baliogabetzea erabaki ahal izango da, modu arrazoituan, eta, hala dagokionean, erakunde interesdunari entzunaldia eman ondoren.

Bereziki, kontuan hartuko da parte hartzeko baldintzak betetzeari edo jarduera behar bezala garatzeari eragin diezaioketen inguruabar administratiboak edo penalak aipatzen diren.

KOMUNIKAZIORAKO TRESNA

www.euskadi.eus/elikagaiensustapena webgunetik 2027an Euskadiko elikagaien industriarako proposatutako jarduerekin lotutako komunikazio guztiak kontsulta daitezke, non azoka bakoitzaren deialdiak eta izena emateko epeak eta inprimakiak jasotzen diren.

- 09 -